BALDINTZA TEKNIKO PARTIKULARREN AGIRIA, PROZEDURA IREKI, TRAMITAZIO ARRUNT ETA ZENBAIT ESLEIPEN-IRIZPIDE BIDEZ, XEDE HAU DUEN KONTRATUA KONTRATATZEKO: ETXEKO OLIO ERABILIA ETA ETXEKO HONDAKIN ARRISKUTSUAK BILTZEKO ETA GARRAIATZEKO, BILDUTAKO OLIOA PROZESATZEKO, OLIOAREN EDUKIONTZIAK ETA HONDAKIN ARRISKUTSUEN BILKETARAKO ETXOLAK GARBITZEKO ETA MANTENTZEKO ETA ANTZEKO LANAK EGITEKO ZERBITZUA EMATEA TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA OSATZEN DUTEN UDALERRIETAN.

AURKIBIDEA

1. KONTRATUAREN XEDEA
2. ETXEKO OLIO ERABILIAREN BILKETA- ETA GARRAIO-ZERBITZUEN DESKRIBAPENA
3. BILDUTAKO ETXEKO OLIOAREN KUDEAKETA
4. ETXEKO HONDAKIN ARRISKUTSUEN BILKETA- ETA GARRAIO-ZERBITZUAREN DESKRIBAPENA
5. OLIO-EDUKIONTZIEN ETA BIRZIKLATZEKO ETXOLEN GARBIKETA ETA MANTENIMENDUA
6. OLIO-EDUKIONTZIAK ETA BIRZIKLATZEKO ETXOLAK LEKUZ ALDATZEA
7. ETXEKO OLIORAKO EDUKIONTZIAK ETA ETXEKO HONDAKIN ARRISKUTSUAK BIRZIKLATZEKO ETXOLAK KONTRATISTARI LAGATZEA
8. LANGILEAK
9. IBILGAILUAK ETA MAKINAK
10. ANTOLAKETA ETA KONTROL SISTEMAK

ERANSKINAK

I. ERANSKINA. 2021ean udalerri bakoitzean bildu ziren etxeko olio-kopuruak.
II. ERANSKINA. Etxeko olioa biltzeko udalerri bakoitzean jarri diren edukiontzi-kopurua.

TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA
Bazurka Industrigunea, 50 – 20260 Alegia - Tel. 943676216 – info@tolosaldekomankomunitatea.eus – www.tolosaldekomankomunitatea.eus

BALDINTZA TEKNIKO PARTIKULARREN AGIRIA, PROZEDURA IREKI, TRAMITAZIO ARRUNT ETA ZENBAIT ESLEIPEN-IRIZPIDE BIDEZ, XEDE HAU DUEN KONTRATUA KONTRATATZEKO: ETXEKO OLIO ERABILIA ETA ETXEKO HONDAKIN ARRISKUTSUAK BILTZEKO ETA GARRAIATZEKO, BILDUTAKO OLIOA PROZESATZEKO, OLIOAREN EDUKIONTZIAK ETA HONDAKIN ARRISKUTSUEN BILKETARAKO ETXOLAK GARBITZEKO ETA MANTENTZEKO ETA ANTZEKO LANAK EGITEKO ZERBITZUA EMATEA TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA OSATZEN DUTEN UDALERRIETAN.

1. KONTRATUAREN XEDEA

Agiri honen xedea da baldintza tekniko batzuk adieraztea, eta baldintza horiek izango dira Tolosaldeko Mankomunitatea osatzen duten udalerrietan etxeko olio erabilia eta etxeko hondakin arriskutsuak gaika biltzeko eta garraiatzeko, bildutako olioa prozesatzeko, olioaren edukiontziak eta hondakin arriskutsuen bilketarako etxolak garbitzeko eta mantentzeko eta antzeko lanak egiteko zerbitzua kontratatzeko oinarria.

Aurkeztutako Proiektua, Baldintza Tekniko Partikularren Agiri hau eta Prozeduraren helburu den zerbitzuaren Esleipen Kontratuaren bitartez ezartzen dena zorrotz betez emango da zerbitzua.

2. ETXEKO OLIO ERABILIAREN BILKETA- ETA GARRAIO-ZERBITZUEN DESKRIBAPENA

2.1. Bilketaren xede diren hondakinak

Bilketaren xede da etxeko olio erabilia, ontzi-mota desberdinetan (plastikozko botilak, beirazko ontziak, brikak, etab.) ontziratutakoa eta Tolosaldeko Mankomunitatea osatzen duten udalerri guztietan kalean jarritako edukiotzi espezifikotan erabiltzaileek botatakoa.

Halaber, kontratistak Mankomunitatearenak diren Andoaingo eta Tolosako Garbigunetan bildutako etxeko olioa jaso beharko du, instalazioen egungo funtzionamendu-ordutegi honetan:

- Andoaingo Garbigunea:
  - Astelehenetik ostiralera 9:00tatik 12:30era eta 16:00tatik 19:00tara
  - Larunbatetan, 9:00tatik 13:30era
  - Abuztuan, astelehenetik larunbatera 9:00tatik 13:30era
- Tolosako Garbigunea:
  - Astelehenetik ostiralera 9:00tatik 14:00tara eta 15:00etatik 17:30era
  - Larunbatetan, 9:00tatik 13:30era
  - Abuztuan, astelehenetik larunbatera 9:00tatik 13:30era

Eskatu ez den beste edozein hondakin olio-edukiontziaren barruan azaltzen bada, kontratista arduratuko da kentzeaz eta kudeatzeaz, hondakinen kudeaketaren hierarkia europarrari jarraikiz.

Edukiontzietan dagoen etxeko olio erabili guztia eta olioarekin batera joan daitezkeen ontziak eta eskatu ez diren bestelako hondakinak zerbitzua ematen duen kontratistaren jabetzakoa izango dira.

2.2. Bildutako etxeko olio-kopurua eta husteko gutxieneko maiztasuna

TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA
Bazurka Industrigunea, 50 – 20260 Alegia - Tel. 943676216 – info@tolosaldekomankomunitatea.eus – www.tolosaldekomankomunitatea.eus

I. ERANSKINEAN, 2021ean udalerri bakoitzean bildu ziren etxeko olio-kopuruak adierazten dira. Halaber, jarritako instalazioak husteko gutxieneko maiztasuna finkatzen da.

Hasiera batean edukiontziak husteko zehaztutako gutxieneko maiztasuna edozein dela ere, kontratua indarrean dagoen bitartean, bete ahala hustu beharko ditu kontratistak edukiontziak, beharrezkoa izanez gero, maizago hustuz, Mankomunitateak kasu bakoitzean emandako jarraibideen arabera, edukiontzietan 1/3 olio botatzeko behar adinako ahalmena beti egon dadin, esleipen-prezioa inolaz ere igo gabe. Edukiontziak betetze mailaren 2/3ak gainditzen baditu, kontratistak gehienez ere 24 ordu baino lehen hustu beharko du, Mankomunitateak abisua eman duen eguna eta ordua edozein izanik ere.

Lizitatzaileek aurreikusi egin beharko dute kontratua indarrean dagoen bitartean bildu beharreko olio kopurua handitu daitekeela, biztanleria handitu delako edo gero eta herritar gehiagok parte hartzen dutelako bilketa-sistema horretan. Esleipena egindakoan, kontratistak ez du horregatik kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango.

2.3. Etxeko olioa biltzeko erabilitako edukiontziak

Zerbitzuko erabiltzaileek kalean jarritako olio-edukiontzietan sartu ahal izango dute etxeko olioa, edozein ordutan eta asteko edozein egunetan. Garbigunen kasuan, kontratistak 50-60 litroko ahalmena duten plastikozko bidoiak banatu beharko ditu, eta ezaugarri berdinak dituzten bidoi huts eta garbiengatik ordezkatuko ditu kentzen dituen bidoi beteak.

Tolosaldeko Mankomunitateak kalean dituen etxeko olioa biltzeko edukiontziak kontratistari lagako zaizkio agiri honetan zehazten diren zerbitzuak eman ditzan. Ez da beste edukiontzi motarik onartuko ezta agiri honetan adierazitako beste bilketa-sistema alternatiborik ere.

II. ERANSKINEAN Mankomunitatea osatzen duten udalerrietan instalatuta dauden edukiontzien kopurua zehazten da. Kontratu honek irauten duen bitartean, gehienez 80 edukiontzi arte handitu ahal izango da edukiontzien kopurua, kontratuaren baldintza tekniko eta ekonomikoak aldatu gabe.

<u>Erabilitako etxeko olioa gaika biltzeko erabiltzen diren edukiontzien ezaugarri teknikoak:</u>

- Edukiontziek bi zulo dituzte goialdean, edukiontziaren aurrealdean eta atzealdean, 5 litro arteko ahalmena duten bidoi edo txanbila txikiak sartu ahal izateko. Zama-zuloek metalezko estalki kulunkari bat dute, barrurantz irekitzen dena. Ixtean estalkiak egin lezakeen zarata saihesteko, zuloek sendoki itsatsitako goma bat dute inguruan, kontaktu-gunean.
- Edukiontziak bi osagai ditu: kanpoko karkasa eta botilaratutako oliorako barruko upel estankoa, biak metalezkoak.
- Kanpoko karkasak lau zulo ditu oinarrian, bi aurrealdean eta bi atzealdean, barrutik lurrera torlojuz lotzeko eta finkatzeko, eta ekintza bandalikoen ondorioz kalteak, iraultzeak eta mugimenduak saihesteko.
- Edukiontziaren kanpoko karkasa 2 milimetroko lodiera duen altzairu galbanizatuzko xaflaz egina dago oso-osorik. Olioa biltzeko barruko upela ere altzairu galbanizatuzkoa da, eta MIG soldadura berezi estankoaren bidez soldatuta dago.
- Olioa biltzeko barruko upelak 900 litroko ahalmena du. Upela guztiz estankoa da, eta bere diseinuari eta barruko kokapenari esker, ontziak ezin dira upeletik kanpora erori. Barruko upelak lau gurpil ditu, kendu eta ordezkatu ahal izateko.
- Edukiontziak barruko upel metalikora sartzeko ate bat du, eta kanpoaldean, hain zuzen ere goialdean uztai bat du altxatu eta manipulatu ahal izateko.
- Edukiontzia moduluka egina dago, errematxe bidez lotutako piezaka, hondatutako osagaiak errazago

TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA
Bazurka Industrigunea, 50 – 20260 Alegia - Tel. 943676216 – info@tolosaldekomankomunitatea.eus – www.tolosaldekomankomunitatea.eus

mantentzeko, konpontzeko edo aldatzeko.

- Edukiontziek binilo gainean inprimatutako lau eranskailu dituzte, bota beharreko hondakinari buruzko informazioa dutenak.
- Kanpoko karkasa lakatuta dago poliester-erretxinaz egindako hauts-pintura termogogorgarria erabiliz, eta aplikazio elektrostatikoaren bidez egindako akabera du kanpoko erabilera industrialerako. Edukiontzia beixa da.
- Olioa biltzeko edukiontziak hornitzeaz MANUFACTURAS METALICAS MADRILEÑAS enpresa arduratu da.

2.4. Etxeko olioa biltzeko eta garraiatzeko zerbitzuaren deskribapena.

Olioaren bilketa behar bezala hornitutako eta margotutako ibilgailu industriala erabiliz egingo da. Ibilgailua derrigorrez zerbitzua ematen duen kontratistaren izenean egongo da eta kontratistaren langileek gidatuko dute.Langile horiek olio-edukiontziaren ondoan aparkatuko dute ibilgailua, edukiontziaren atea irekiko dute, barruan dagoen metazko upela atera eta horren ordez hutsik eta kanpotik nahiz barrutik erabat garbia dagoen beste upel bat jarriko dute. Aldaketa egin ondoren, edukiontziaren atea eta barruko segurtasuneko barra kandaduarekin itxita geratuko dira berriro.Edukiontzitik ateratako upela, bere eduki eta guzti, bilketako ibilgailuan kargatuko da eta zuzenean garraiatuko da etxeko olioa erabilia prozesatzeko plantara, upel barruan olioz beteta dauden ontziak inoiz atera gabe, ez bilketa egiterakoan ezta garraiatzerakoan ere.

Ibilgailuak behar-beharrezkoak diren geldiuneak eta maniobrak egingo ditu bilketa-puntuetan, beti ere langileen eta ibilgailuen igarotzea oztopatu gabe. Horretarako, segurtasun-neurriak hartuko ditu, Trafikoaren Legea beteko du une oro eta arau-haustea edo arriskua eragin dezaketen maniobrak saihestuko ditu. Bilketako ibilgailuak beharrezkoak diren osagarri teknikoak izango ditu hutsik dauden upelak ibilgailutik edukiontzira eramateko, betetako upelak edukiontzitik ibilgailura eramateko eta betetako upelak ibilgailura kargatzeko, beti ere ahalik eta segurtasunik handiena bermatuz eta kargak manipulatzeko indarrean dagoen araudia betez.

Halaber, bildutako olioaren garraioa honelako substantziak errepidetik garraiatzeko indarrean dagoen araudia betez egingo da.

Edukiontziak husteko modu hau jasotzen ez duen proposamen teknikorik ez da inolaz ere onartuko eta bereziki kalean olioz betetako ontziak batetik bestera, upeletik bilketako ibilgailura, eskuz (edo beste edozein modutan) tokialdatzea. Honen guztiaren arrazoia bildu beharreko hondakinaren ezaugarrietan datza (hondakin likidoa da eta ontzi hauskorretan eta behar adina bermerik ez duten balditzetan ontziratua dago) eta bai kalean bai errepide sarean ezbeharrezko olio-isurketak eta horiek dakarten kutsadura-arriskua ekidin nahi dira.

Kontratistak bilketa-zerbitzua emateko behar adina upel metaliko izango ditu. Upel horiek edukiontzien barruan dauden bezalakoak izango dira, berdin-berdinak. Ez da beste inolako upelik onartuko.

Kontratistak kontu handiz ibili beharko du zerbitzua emateko garaian, espaloiak eta galtzadak ez zikintzeko.

Bilketaz arduratzen den langileak berehala garbituko ditu bilketa eta garraio lanetan ustekabean isuritako olio-arrastoak, horretarako produktu xurgatzaileak eta tresna egokiak erabiliz.
Edonola ere, lizitatzaileek Memoria Teknikoan “Isurketen aurkako Ekintza Plana” aurkeztuko dute, non ustekabean olioaren isurketa gertatzen bada, horri aurre egiteko jarraituko den prozedura zehaztuko den. Prozedurak gutxienez jaso beharko du euri uren sarera olioa ez iristeko erabiliko diren euskarriak eta xurgatzaileak, isuritako olioa xurgatu eta kentzea eta zonaldea presiopeko pistolaz garbitzea.

TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA
Bazurka Industrigunea, 50 – 20260 Alegia - Tel. 943676216 – info@tolosaldekomankomunitatea.eus – www.tolosaldekomankomunitatea.eus

Olio-bilketa egiterako orduan kontratistak edukiontzietatik kanpo etxeko olio erabiliz betetako ontziak topatzen baditu, jaso eta kudeatuko ditu gaineratiko olioarekin batera.

Mankomunitateko zerbitzu teknikoek kontratistari erabiltzaileek utzitako olioz betetako ontziak edukiontzietatik kanpo daudela edota arrazoi jakinik gabe olio-isurketak daudela jakinarazten diotenean, kontratistak, gehienez ere 24 orduko epea izango du, abisua ematen zaionetik kontatzen hasita, aipatutako ontziak jasotzeko edota isurketa garbitzeko.

Lizitatzaileek, beren eskaintzetan, Mankomunitatea osatzen duten udalerrien berezko ezaugarrietara eta proposatutako bilketa-sistemara hobekien egokitzen diren bilketa-egunak eta -ordutegiak proposatuko dituzte. Hala ere, Mankomunitateko zerbitzu teknikoak eskubidea izango du aipatutako egunak eta ordutegiak aldatzeko, eta esleipenduna behartuta egongo da aldaketa horiek onartzera.

Horretarako, honako hau hartuko dute kontuan: udalerriaren tamaina, edukiontziak husteko gutxieneko maiztasuna, sortutako eta bildutako etxeko olio erabili kopurua, zerbitzuaren ondorioz inolako gorabeherarik ez sortzea eta asteko azokek zerbitzua bera ez eragoztea, ibilgailuen trafikoaren intentsitatea eta herritarren jarduera oro har.

Bildutako olioaren trazabilitatea bermatzeko, kontratistak bilketa guztiak dokumentalki erregistratuko ditu, bai programatuak bai programatu gabekoak, edukiontzi bakoitzean jasotako olioaren pisua eta jatorri zehatza erregistratuz.

Hilero kontratistak Mankomunitateari txostena bidaliko dio egindako bilketa guztiak eta bildutako kantitateak udalerrika eta edukiontzika zehaztuz, kontratatutako lanak frogatzeko.

2.5. Etxeko olioa biltzeko sistemaren antolaketa

Lizitatzaileek Memoria Tekniko bat aurkeztuko dute, eta bertan, honako alderdi hauek garatu beharko dituzte gutxienez:

a) Bilketa- eta garraio-ekipoen deskribapen zehatza, ibilgailuei eta langileei dagokienez:

- Proposatutako baliabideekin olioa nola bildu eta garraiatuko den.
- Erabiliko diren bilketako ibilgailuen kalitate eta ezaugarri teknikoak.
- Ibilgailuaren ahalmena, bereziki garraia ditzakeen upel kopurua.
- Upel beteak hutsik dauden upelekin ordezkatzeko upel hutsen stocka.
- Hutsik dauden upelak ibilgailutik olio-edukiontzira eramateko eta betetako upelak edukiontzitik bilketako ibilgailura eramateko erabiliko den sistema.
- Betetako upelak bilketako ibilgailuan kargatzeko erabiliko den sistema eta upelak bilketako ibilgailuaren barruan eusteko erabiliko den sistema.
- Bilketa-zerbitzuan arituko diren langileen deskribapena eta emandako lanak.

b) Proposatutako bilketa-ibilbideak behar bezala justifikatuta, bakoitzean ondorengoa zehaztuz:

- Bilketako ekipoa osatzen duten ibilgailua eta langileak.
- Egingo den ibilbidea.
- Egingo diren kilometroen aurreikuspena.
- Ibilbide bakoitza zein ordutan hasi eta zein ordutan bukatuko den, modu honetan zehaztuz:

TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA
Bazurka Industrigunea, 50 – 20260 Alegia - Tel. 943676216 – info@tolosaldekomankomunitatea.eus – www.tolosaldekomankomunitatea.eus

- Olioaren bilketa-lanean erabiliko den denbora (iritsi, ibilgailua utzi eta upelak ordezkatu eta kargatzeko lan guztia).

- Joan-etorrietan erabiliko den denbora, abiapuntutik bilduko den lehen olio-edukiontzira, eta bilduko den azken olio-edukiontzitik olio gordina prozesatuko den plantara.
- Legezko atsedena hartzeko hartuko den denbora.
- Olioa prozesatzeko plantan deskarga egiteko erabiliko den denbora.

- Ibilbide bakoitzean hustuko diren edukiontzi kopurua, zein udalerriri dagokion zehaztuz.
- Ibilbide bakoitzean biltzea aurreikusten den olio kantitatea (kg.tan), kantitate hori ibilbidea osatzen duten udalerrien artean zatituz.
- Olioa prozesatzeko plantara lanegun bakoitzean egingo diren bidaia kopurua.
- Eskala egokian egindako xehetasun-planoak, non bilketa-ibilbideak eta hustuko diren edukiontziak zehaztuko diren.

c) Bilketa-egutegia eta -ordutegia:

- Udalerrika.
- Egutegiko egun bakoitzean bilketa egingo den udalerriak zerbitzua emango den ordenean.

d) Erreserbako ibilgailuak eta matxura kasuetan edo programatutako geldialdietan aurreikusitako ekintza-plana.

e) Bilketa zerbitzua kontrolatzeko, edukiontziak identifikatzeko eta izan litezkeen gorabeherei aurre egiteko aurreikusitako sistema.

f) Ustekabean olioa isurtzen bada aurre egiteko aurreikusitako ekintza-plana.

g) Eskatu ez diren beste hondakin batzuk antzemanez gero aurre egiteko ekintza-plana.

h) Zerbitzua ahalik eta ondoen ezagutzeko beharrezkotzat jotzen diren datuak.

3. BILDUTAKO ETXEKO OLIOAREN KUDEAKETA

3.1 Edukiontzietan dagoen olioaren jabetza

Edukiontzietan dagoen etxeko olio erabili guztia kontratistarena izango da.

Edukiontzietan olioa biltzeko, jasotzeko, garraiatzeko, biltegiratzeko, aldez aurretik egokitzeko eta balorizatzeko orduan sor daitezkeen obligazio eta erantzukizun guztiak kontratistaren kontura izango dira.

3.2 Bildutako olioa aldez aurretik egokitzea eta biltegiratzea.

Biltzen den olio guztia inolako manipulaziorik gabe prozesaketa-planta batera garraiatuko da zuzenean, balorizatu aurretik izan ditzakeen zikinkeriak garbitzeko eta bestelako egokitzapen-lanak egiteko.

Kontratistaren betebeharra izango da upelak pisatzea, olioa balioztatzeko kaltegarriak diren bestelako hondakinak

TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA
Bazurka Industrigunea, 50 – 20260 Alegia - Tel. 943676216 – info@tolosaldekomankomunitatea.eus – www.tolosaldekomankomunitatea.eus

kentzea, upelak hustea, edukiontzien erabiltzaileek olioa ontziratzeko erabili dituzten etxeko ontziak hustea eta sailkatzea.

Era berean, kontratistaren betebeharra izango da ontziratutako olioa biltzeko upel metalikoen garbiketa sakona egitea, betiere bere instalazioetan eta upelak erabili ondoren. Horretarako, presio bidezko garbiketa-sistemak eta garbigarri eta koipegabetzaile aproposak erabiliko ditu.

Lizitatzaileek alderdi hauek zehaztuko dituzte Memoria Teknikoan:

- Bildutako olioa aldez aurretik egokitzeko eta biltegiratzeko instalazioen deskribapena.
- Olioa aldez aurretik egokitzeko lanen deskribapena.
- Olio erabilia egon den etxeko ontziak husteko eta birziklatzeko lanen deskribapena.
- Upelak garbitzeko lanen deskribapena.
- Plantaren indarreko baimena hondakin ez arriskutsuak kudeatzeko.

3.3. Bildutako olioaren balorizazioa.

Kontratistaren betebeharra izango da bildutako olioa, egokitu ondoren, baimendutako balorizatzaile bati ematea diesel zikloko motorretarako bioerregaia (biodiesela) lortzeko.

Kontratistak Memoria Teknikoan adierazi beharko du zein kudeatzaile baimenduri emango dion olioa balorizatzeko, eta aipatutako balorizatzailearen adostasun-idazkia aurkeztuko du.

Tolosaldeko Mankomunitateak, edozein momentutan, Tolosaldeko Mankomunitatean bildutako bildutako eta prozesatutako etxeko olio erabilia jaso duen plantaren baimenak aurkezteko eska diezaioke kontratistari eta baita emandako olioa guztiaren hondakin ez arriskutsuen onarpen-agiriak eta fakturak.

3.4. Olioa egokitzeko zerbitzuaren antolaketa.

Enpresa lizitatzaileei dagokie lehen deskribatutako sukaldeko olio erabilia prozesatzeko sistemarik eragingorrena proposatzea, lizitatzaile bakoitzak egokien deritzan baliabide materialekin eta pertsonalarekin.

Lizitatzaileek Memoria Teknikoan zehaztuko dituzte antolaketa-proiektua, baliabide materialak eta langileak, gutxienez ondorengo atal hauek garatuz:

a) Bildutako etxeko olio erabilia egokituko duen plantak dituen instalakuntzak eta makineriaren deskribapena, planoak eta argazkiak eta abar ere aurkeztuz.

b) Etxeko olio erabilia prozesatzeko ahalmena (kg/hileko). Etxeko olioa egokitu ondoren biltegiratzeko ahalmena.

c) Olioa egokitzeko prozesu guztia sekuentzialki deskribatzea, pausoz pauso.

d) Bildutako olioa pisatzeko sistemaren deskribapena.

e) Upel metalikoen garbiketa-lanen deskribapena.

f) Olioa ontziratzeko erabilitako plastikozko, beirazko (eta abar) ontzien kudeaketaren deskribapena, kudeatzaileak

TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA
Bazurka Industrigunea, 50 – 20260 Alegia - Tel. 943676216 – info@tolosaldekomankomunitatea.eus – www.tolosaldekomankomunitatea.eus

emandako agiriak aurkeztuz.

g) Olio edukiontziaren barruan edo bere inguruan utzitako eskatu ez diren beste hondakin batzuen kudeaketaren deskribapena, kudeatzaileak emandako agiriak aurkeztuz.

h) Olioaren dekantazio eta iragazketan sortutako ur zikinen eta hondakin organikoen kudeaketaren deskribapena, kudeatzaileak emandako agiriak aurkeztuz.

Mankomunitateak, beharrezkotzat jotzen badu, aukera izango du bildutako etxeko olioa prozesatuko duen planta edozein momentutan ikusteko, bai kontratazio-espedientea izapidetzen den bitartean bai zerbitzua kontratatu eta gero.

4. ETXEKO HONDAKIN ARRISKUTSUEN BILKETA ETA GARRAIOA

4.1. Bilketaren xede diren hondakinak.

Zerbitzu honen bidez jasoko dira erabiltzaileek kalean dauden birziklapen-etxoletan uzten dituzten etxeko hondakin arriskutsuak. Hauek dira hondakin horiek:

- Tinta/toner-kartutxoak
- disolbatzaileak eta garbigarriak
- aerosolak
- pinturak, tintak, eranskailuak, brotxak,...
- motor-olioa (ontzi itxian)
- pilak, bateriak eta metagailuak
- fluoreszenteak
- tresna elektriko eta elektroniko txikiak (TEEH)
- etxean sortutako beste hondakin arriskutsu batzuk

Kontratistaren ardura izango da, halaber, birziklapen-etxolaren barruan azal daitekeen eskatu ez den beste edozein hondakin kentzea.

Bildutako etxeko hondakin arriskutsuak Mankomunitateak Tolosako San Blas auzoan eta Andoaingo Aranaztegi Industrialdean dituen Garbigunetako edozeinetan entregatuko dira.

4.2. Birziklapen-etxolen kokapena eta bilketaren gutxieneko maiztasuna.

Erantsitako koadroan instalatutako birziklapen-etxolen kokapena eta horietako bakoitza husteko finkatu den gutxieneko maiztasuna zehazten dira:

UDALERRIA	**HELBIDEA**	**BILKETA-MAIZTASUNA**
ALEGIA	Kulturetxea	Hilean behin
ANDOAIN	Taxien aparkalekua, Kaleberria	Hilean bitan
ANOETA	Udaletxe ondoan (zehazteke)	Hilean behin

TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA
Bazurka Industrigunea, 50 – 20260 Alegia - Tel. 943676216 – info@tolosaldekomankomunitatea.eus – www.tolosaldekomankomunitatea.eus

ASTEASU	Ibarrazpi pasealekua	Hilean behin
BERASTEGI	Eliza ondoko aparkalekuan	Hilean behin
IBARRA	San Inazio auzoa	Hilean bitan
IRURA	Kulturgunean	Hilean behin
TOLOSA	Emeterio Arrese	Hilean bitan
VILLABONA	Kaleberria, Mintzola	Hilean bitan
ZIZURKIL	Joxe Arregi Plaza	Hilean behin

Hasiera batean hondakin arriskutsuen birziklapen-etxolak husteko finkatutako gutxieneko maiztasuna edozein dela ere, kontratua indarrean dagoen bitartean, bete ahala hustu beharko ditu kontratistak etxola bakoitzean dauden edukiontziak, beharrezkoa izanez gero, maizago hustuz, esleipen-prezioa inolaz ere igo gabe.

Halaber, izaera landatarra duten herri jakin batzuetan, etxeko hondakin arriskutsuak biltzeko edo bilketa osatzeko, ontzi estankoak izango dituzten sarbide libreko entrega-puntuak jarriko dira biztanleek hondakinak utzi ahal izateko.

Ontzi horiek, oro har, Udaletxearen edo beste eraikin berezi baten ondoan jarriko dira, eta hondakin-bilketarekin zerikusia duen kartel bat izango dute, zenbait aholku eta gomendio barne. Modu honetan utzitako hondakin arriskutsuak hilean behin bilduko dira. Lizitazioaren unean hauek dira bilketa-sistema hori duten herriak:

UDALERRIA	**HELBIDEA**	**BILKETA-MAIZTASUNA**
ADUNA	Udal-bulegoak	hilean behin
ALKIZA	Udal-bulegoak	hilean behin
AMEZKETA	Udal-bulegoak	hilean behin
IKAZTEGIETA	Udal-bulegoak	hilean behin
LARRAUL	Udal-bulegoak	hilean behin
LEABURU	Udal-bulegoak	hilean behin
ZIZURKIL GOIA	Udal-bulegoak	hilean behin
ABALTZISKETA	Udal-bulegoak	Hilean bitan
ALBIZTUR	Udal-bulegoak	Hilean bitan
BALIARRAIN	Udal-bulegoak	Hilean bitan
BERROBI	Udal-bulegoak	Hilean bitan
GAZTELU	Udal-bulegoak	Hilean bitan
HERNIALDE	Udal-bulegoak	Hilean bitan
LIZARTZA	Udal-bulegoak	Hilean bitan
OREXA	Udal-bulegoak	Hilean bitan

TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA
Bazurka Industrigunea, 50 – 20260 Alegia - Tel. 943676216 – info@tolosaldekomankomunitatea.eus – www.tolosaldekomankomunitatea.eus

TOLOSA	Udal-bulegoak eta ikastetxeak	Hil bakoitzeko lehen asteartea, 8:00tatik aurrera

4.3. Hondakin arriskutsuak biltzeko birziklapen-etxolen ezaugarriak.

Etxeko hondakin arriskutsuak biltzeko kalean dauden birziklapen-etxolek Garbigune txikien funtzioa betetzen dute. Metalezkoak dira, itxiak daude eta erabiltzaileek modu azkarrean, seguruan eta garbian hondakinak sartzeko leihoak dituzte paretetan. Behin barruan daudenean, hondakinak edukiontzitan edo upeletan biltzen dira, bereizita, hondakin-motaren arabera, eta bilketaz arduratzen diren langileek soilik har ditzakete.

Etxolaren barruko oinarria estankoa da, eta lurrak ere 300 bat litroko upel estanko bat osatzen du, barruko edukiontzi edo upelen batek ihesen bat izan lezakeen kasuetarako.

Ateak kandadu edo segurtasun-itxigailu bat du, eta ate horretakoa baino ez den giltza bat du baimenduta ez dagoen inor sar ez dadin.

4.4. Etxeko hondakin arriskutsuen bilketa- eta garraio-zerbitzuaren deskribapena.

Olioaren bilketa behar bezala hornitutako eta margotutako ibilgailu bat erabiliz egingo da. Birziklapen-etxolen ondoan jarriko da, beti ere langileen eta ibilgailuen igarotzea oztopatu gabe eta segurtasun-neurri egokiak hartuz. Ibilgailuak zenbait konpartimentu eta tanga izango ditu jaso behar diren hondakin desberdinak gordetzeko.

Kontratistak kontu handiz ibili beharko du hondakinak biltzeko eta garraiatzeko garaian, edozein motatako isurketarik ez gertatzeko. Horretarako, hondakinen azken kudeatzailearekin aurretiaz adostutako protokoloari jarraituko dio edozein motatako istripurik ez izateko eta hondakinen azken tratamendua errazteko. Manipulatzeko zereginetan isurtzen diren hondakinak berehala kenduko ditu bilketaz arduratzen den langileak, edo beste modu alternatibo bat erabiliz kenduko ditu, betiere alternatiba horrek kale-garbiketako udal-zerbitzuak tartean sartzen ez baditu.

Etxeko hondakin arriskutsuak ibilgailuan bertan sailkatu beharko dira, eta bildu diren egun berean garraiatuko dira Mankomunitatearen Garbiguneetara. Behin Garbigunean dagoenean, langileak hondakin arriskutsuak utziko ditu instalazioaren arduradunen jarraibideak betez.

Bestalde, langileak parte bat entregatuko du, eta bertan, hauxe zehaztu beharko du gutxienez: entrega data eta ordua, langilearen izena, hondakinen jatorria (udalerria edo udalerriak) eta entregatutako hondakin-kopuruak, hondakin-motaren arabera banakatuta. Ez dira inola ere entregatuko Mankomunitateko udalerrietakoak ez diren hondakinak.

Etxeko hondakin arriskutsuak entregatu ondoren, Mankomunitateak kudeatuko ditu.

4.5. Etxeko hondakin arriskutsuen bilketa- eta garraio-zerbitzuaren antolaketa.

Lizitatzaileek Memoria Tekniko bat aurkeztuko dute, eta bertan, honako alderdi hauek garatu beharko dituzte gutxienez:

- Bilketarako ekipoen deskribapen zehatza, ibilgailuei eta langileei dagokienez.
- Behar bezala arrazoitutako bilketa-ibilbideak.
- Bilketarako egutegia eta ordutegia.
- Kontratistaren instalazio finkoetan dauden erreserba-ibilgailuak eta aurreikusitako jarduketa-plana matxurarik

TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA
Bazurka Industrigunea, 50 – 20260 Alegia - Tel. 943676216 – info@tolosaldekomankomunitatea.eus – www.tolosaldekomankomunitatea.eus

edo antolatutako etenaldirik egonez gero.
- Zerbitzua ahalik eta ondoen azaltzeko beharrezkoak diren datu guztiak.

5. OLIO-EDUKIONTZIEN ETA BIRZIKLAPEN-ETXOLEN GARBIKETA ETA MANTENIMENDUA

Edukiontzi eta birziklapen-etxola guztien egoera higieniko-sanitario egokia eta itxura ona bermatzeko, kontratistak ondo baino hobeto garbitu eta desinfektatu beharko ditu Mankomunitateko udalerrien lurralde-eremuan dauden zerbitzura adskribatutako bitarteko material guztiak.

Edukiontziak eta birziklapen-etxolak garbitzeko ohiko lanak “in situ”, egingo dira, hau da, edukiontzien kokalekuan bertan. Horretarako, kontratistak neurri egokiak hartuko ditu, garbiketa-lanen ondorioz eta garbiketa-ibilgailua edukiontziaren inguruan aparkatzearen ondorioz ondasunei edo pertsonei eragozpenik ez sortzeko.

Edukiontziak eta birziklapen-etxolak hilean bi aldiz gutxienez garbituko dira kanpotik. Gutxieneko maiztasuna aipatutakoa dela ere, Mankomunitateak eskatuta, kontratistak garbiketen arteko epealdian zikin dauden edukiontziak (edo inguruan egon daitezken ustekabeko isuriak) eta birziklapen-etxolak garbitu beharko ditu, esleipen-prezioa inolaz ere igo gabe.

Garbitutakoan, ez da inolako zikinkeria-arrastorik egongo edukiontzien eta etxolen kanpoaldean eta inguruan.

Garbiketa-lanak egunez egingo dira, inoiz ez 8:00ak baino lehen, bizilagunei ahalik ez eragozpen gutxien sortzeko.

Era berean, esleipendunak prebentziozko mantentze-lan eta konponketa-lan guztiak antolatu eta egin beharko ditu, edukiontziak eta birziklapen-etxolak erabiltzeko egoerarik onenean edukitzeko.

Gutxienez, honakoa egingo da lan horietan:

- Edukiontzien eta birziklapen-etxolen egoera funtzionala eta kontserbazio-egoera ikuskatuko dira aldian-aldian. Berrikuspenak egiteko gutxieneko aldizkakotasuna bat etorriko da edukiontzi eta etxola bakoitzari esleitutako husteko aldizkakotasunarekin.
- Barruko upela hartzeko atearen bandak eta segurtasun-itxigailuak berrikusiko dira.
- Edukiontzien eta etxolen zama-zuloen estalki kulunkariak eta zarata arintzeko sistemak berrikusiko dira.
- Olioaren edukiontzia lurrera torlojuz lotzeko lau puntuak berrikusiko dira.
- Narriatutako edo hondatutako edozein osagai ordezkatu edo konponduko da.
- Edukiontziaren eta birziklapen-etxolaren eranskailuak ordezkatuko dira, ondo ikusten ez direnean edo narriatuta daudenean.
- Margo eta graffiti guztiak kenduko dira, edukiontziari eta birziklapen-etxolari kalterik egiten ez dieten produktu eraginkorren bidez.
- Kolpeen edo talken ondorioz, edukiontzietan eta birziklapen-etxoletan sortutako mailatuak, itxuraldaketak edo desdoikuntzak konponduko dira.
- Urraduren ondorioz, edukiontzietan eta birziklapen-etxoletan sortutako marrak edo askatutako pintura edo materiala konponduko dira.
- Behar izanez gero, esleipenduna arduratuko da errotulazioa ordezkatzeaz, bisagrak, ahoak eta sarbide-tranpolak aldatzeaz, korrosio-zeinuak kentzeaz eta edukiontziak eta etxolak osorik berriro pintatzeaz. Etxolen kasuan, berpintatzearen ordez kanpoko estaldura edo estaldurako beste elementu batzuk jarri ahal izango dira.

TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA
Bazurka Industrigunea, 50 – 20260 Alegia - Tel. 943676216 – info@tolosaldekomankomunitatea.eus – www.tolosaldekomankomunitatea.eus

Ustekabean agertutako premien ondorioz programatu gabeko mantentze-lanak egin behar direnean, kontratistak 24 orduko gehienezko epea edukiko du atzemandako arazoa konpontzeko.

Kontratistak furgoi bat jarriko du edukiontzien eta birziklapen-etxolen mantentze-zerbitzura, zeinak langile kualifikatu bat eta edozein mantentze- edo konponketa-lan "in situ" egiteko beharrezkoak diren tresnak, erremintak eta osagaiak izango dituen. Mantentze-lanak ezin direnean "in situ" egin, kontratistaren instalazio finkoetan egin beharko dira derrigorrean edo, bestela, Mankomunitateak aurretiaz baimendutako eremu hurbilean.

Narriatutako edo hondatutako edozein osagai ordezkatzeko edo konpontzeko erabilitako ordezko piezak originalak izango dira beti, hau da, edukiontziak ekoitzi dituen enpresak (Manufacturas Metálicas Madrileñas) hornitu beharko ditu.

Lizitatzaileek, Memoria Teknikoan, garbiketa- eta mantentze-zerbitzuaren antolaketa zehaztuko dute, eta bertan, honako alderdi hauek garatu beharko dituzte gutxienez:

- Edukiontziak eta birziklapen-etxolak garbitzeko lanen deskribapen zehatza.
- Garbiketa-ekipoaren deskribapena, ibilgailuari eta langileei dagokienez.
- Behar bezala arrazoitutako garbiketa-ibilbideak eta garbitu beharreko edukiontziak eta birziklapen-etxolak.
- Garbiketarako egutegia eta ordutegia.
- Olioa biltzeko edukiontzien eta etxolen kontserbazio- eta mantentze-plana, prebentziozkoa eta zuzentzailea.
- Egin beharreko mantentze-lanen deskribapen zehatza, eta lan horiek egiteko modua.
- Mantentze-lanetarako ekipoaren deskribapena, ibilgailuari eta langileei dagokienez.
- Edukiontzien ordezko piezen stockaren deskribapena.

6. ETXEKO OLIO-EDUKIONTZIAK ETA BIRZIKLAPEN-ETXOLAK LEKUZ ALDATZEA

Kontratistak honako lan hauek egin beharko ditu:

- Jarritako olio-edukiontziak eta birziklapen-etxolak arrazoitutako edozergatik kendu eta beste leku batean kokatzea (zerbitzuaren premiak, lanak, asfaltatze-lanak, ibilgailuen zirkulazio-aldaketak, ibilgailu edo oinezkoentzako egoera arriskutsuak, gizarte-gertaerak, kultur edo kirol ekitaldiak, indarkeriazko ekintzak edo ekintza bandalikoak…).
- Mankomunitateak agindutako antzeko beste lan batzuk egitea.

Kontratistak Mankomunitateak agindutakoa bere beharko du, Mankomunitateak adierazitako epean.

7. ETXEKO OLIORAKO EDUKIONTZIAK ETA ETXEKO HONDAKIN ARRISKUTSUAK BIRZIKLATZEKO ETXOLAK KONTRATISTARI LAGATZEA

Tolosaldeko Mankomunitateak kontratistari, zerbitzua eman ahal izateko, etxeko olio erabilia botatzeko Agiri honetan deskribatutako edukiontzi guztiak lagako dizkio eta baita etxeko hondakin arriskutsuak birziklatzeko 9 etxola ere (Villabonakoa salbu).

Edukiontziek kalean duten kokapenaren, erabiltzaileek egiten duten erabileraren eta ustiatze-lanekin lotutako

TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA
Bazurka Industrigunea, 50 – 20260 Alegia - Tel. 943676216 – info@tolosaldekomankomunitatea.eus – www.tolosaldekomankomunitatea.eus

eragiketen ondorioz izan litezkeen erantzukizun guztiak, kontratistak hartuko ditu bere gain.

Kontratua esleitu ondoren, kontratistak ezin izango dio eskatu Administrazioari zerbitzua emateko utzi zaizkion edukiontziak eta birziklapen-etxolak aldatzea edo berritzea. Dena dela, kontratistak egokitzat jotzen dituen aldaketak eta hobekuntza teknikoak egin ahal izango ditu bere kontura, Mankomunitatearen aurretiazko baimenarekin.

Kontratistak berari utzitako edukiontzi eta etxola guztiak garbi eta kontserbazio egoera onean edukitzeko betebeharra du.

Edukiontzien mantentze- eta kontserbazio-lanek eragindako gastuak kontratistaren kontura izango dira.

Kontratua amaitzen denean, kontratistak utzitako edukiontziak eta birziklapen-etxolak itzuliko dizkio Tolosaldeko Mankomunitateari, eta kontserbazio zein funtzionamendu egoera ezin hobean itzuliko dizkio gainera, ohiko erabilerak eta urteen joan-etorriak eragindako narriadura kontuan hartuta.

Kontratistak edukiontziak behar bezala mantendu eta zaindu dituela bermatzeko, kontratua edo kontratuaren luzapenak amaitu baino hiru hilabete lehenago, Mankomunitateak ikuskaritza teknikoa egingo du, eta kontratistak atzemandako kalte guztiak konpondu eta ordezkatu beharko ditu, betiere erabilera eta mantenimendu arretatsuak eragindako ohiko narriadura baino handiagoak badira.

8. LANGILEAK

Kontratistak zerbitzua betetzeko behar diren langileak izango ditu une oro, betiere Preskripzio Teknikoen Agiri honetan eta aurkeztutako eskaintzan adierazitako ildo eta zehaztasunen arabera.

Zerbitzuaren buru izango den arduradun bat izendatuko da. Arduradun horrek gaitasuna izango du kontratarekin zerikusia duten gaietan erabakiak hartzeko, eta zuzeneko harremana izango du Mankomunitatearekin.

Kontratistak kontratuaren xede den zerbitzua eraginkortasunez ematen dela ziurtatzeko eta gaixotasun edo istripuengatiko bajek, baimenek, lan sindikalek, oporrek eta behar den bezala justifikatutako arrazoiek eragindako egoerak, zein ezusteko bajak eta absentismoa betetzeko giza baliabide nahikoa duela ziurtatuko du.

Langileak lanera ez badoaz edo bajan badaude, kontratistak berehala bete beharko ditu lanpostu horiek.

Horren harira, lizitatzaileek, beren proposamenetan, kontratatutako zerbitzuak behar bezala emateko beharrezkoak diren langileen inguruko aurreikuspen-proposamen bat aurkeztu beharko dute, eta baita langileak ordezkatzeko plan bat ere.

Langile guztiak behar bezala identifikatuta egongo dira zerbitzuen segurtasuna bermatze aldera, eta horretarako, identifikazio-sistemarik eraginkorrena proposatu beharko da.

Kontratista behartuta dago Lan, Gizarte Segurantza eta Laneko Segurtasun eta Higiene arloan indarrean dauden legezko xedapenak eta eta kontratuari aplikagarria zaion gainerako araudia betetzera, eta Mankomunitateak ez du inolako erantzukizunik izango xedapen eta arau horiek betetzen ez baditu.

Kontratistak Gizarte Segurantzari, lan-istripuei eta PFEZari buruzko lan-arloko betebehar guztiak bete beharko ditu.

TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA
Bazurka Industrigunea, 50 – 20260 Alegia - Tel. 943676216 – info@tolosaldekomankomunitatea.eus – www.tolosaldekomankomunitatea.eus

Tolosaldeko Mankomunitateak ez du lege edo lan arloko, edo beste mota bateko harremanik izango esleipendunaren langileekin kontratua indarrean dagoen bitartean, ezta kontratua amaitzen denean ere, eta esleipendunaren kontura izango dira lehiaketa hau dela eta sor litezkeen betebehar, kalte-ordain eta erantzukizun oro.

9. IBILGAILUAK ETA MAKINAK

Esleipendunak zerbitzua ondo emateko beharrezkoak diren bitarteko material guztiak jarri beharko ditu.

Zerbitzua ematera bideratutako baliabideek laneko plana behar den garaian gauzatzeko eta gerta litezkeen ezustekoei erantzuteko zerbitzuak behar adinako tartearekin emateko modukoak direla bermatuko dute. Erabiliko den material mugikorra zerbitzuaren eskakizunei erantzuteko egokiena izango da.

Kontratari lotutako baliabide material guztiak Mankomunitatearen zerbitzura jarriko dira denbora partzialean, hots, zerbitzua bete behar denean bakarrik.

Lizitatzaileek, beren eskaintzetan, zerbitzuetan erabiliko duten material mugikorraren berri emango dute. Argi eta garbi adieraziko dute zeintzuk diren zerbitzua ondo emateko beharrezkoa den materiala eta erreserbako materiala, hau da, zerbitzuan egon ez arren, matxuretan edo zerbitzua indartzeko lanetan noizean behin lehenengoak ordezkatzeko erabiliko diren materialak.

Erabiliko diren material guztiak zehatz-mehatz deskribatu beharko dituzte lizitatzaileek; horretarako beharrezkotzat jotzen dituzten datuak aurkeztu beharko dira material horiek ahalik eta hobekien ezagutzeko. Bereziki baloratuko dira ibilgailuen gas emisioak murriztera bideratutako neurriak.

Kalean lan egiteko erabiliko diren ibilgailu guztiak erraz ikusi beharko dira. Era berean, derrigorrezko segurtasun-sistemak izango dituzte, eta oinezkoek nahiz gidariek ibilgailuak erraz ikusi eta arriskuak saihesteko beharrezkoak diren seinaleztapen-sistemez hornituta egongo dira.

10. ANTOLAKETA ETA KONTROL SISTEMAK

Proposatutako antolaketaren barnean, kontratistak gailu informatiko arinak edukiko ditu –Tolosaldeko Mankomunitateak eskatutako datu guztiak garaiz ematea ahalbidetuko duten gailuak, alegia– egindako lanak justifikatzearren eta kontratatutako zerbitzuari buruz egoki irizten dituen kontrolak egokiak izatearren. Gailu eta sistema horiek bateragarriak izango dira Mankomunitateak dituenekin.

Kontratistak honako datu hauei buruzko informazioa eman beharko dio hilero Tolosaldeko Mankomunitateari:

- Etxeko olio erabilia botatzeko edukiontziak: hustutako edukiontziak, hustuketa-datak, edukiontzien betetze-mailak, bildutako olio kopurua, garbitutako edukiontziak, garbiketa-datak, kontserbazio- eta mantentze-lanak egin zaizkien edukiontziak, lanen datak, egindako lanak, zerbitzu bakoitzean izan diren gorabeherak, etab.
- Etxeko hondakin arriskutsuak birziklatzeko etxolak eta upelak: bilketa-datak, betetze-mailak, garbiketa-datak, mantentze- eta kontserbazio-lanak, gorabeherak, etab.

TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA
Bazurka Industrigunea, 50 – 20260 Alegia - Tel. 943676216 – info@tolosaldekomankomunitatea.eus – www.tolosaldekomankomunitatea.eus

Horretaz gain, Arduradunaren eta Tolosaldeko Mankomunitatearen Zerbitzu Teknikoaren arteko komunikazio-sistema bizkorra eta eraginkorra izateko beharrezkoak diren baliabideak eduki beharko ditu esleipendunak (telefono mugikorra, posta elektronikoa eta abar).

Kontratatutako zerbitzua Tolosaldeko Mankomunitateak ikuskatu eta zainduko du bere Zerbitzu Teknikoaren bitartez. Zerbitzu horrek bidezkotzat jotzen dituen ikuskapenak egingo ditu, noiznahi eta nonahi. Mankomunitateak horretarako izendatzen dituen ikuskariak zerbitzuko lokaletan eta geletan sartu ahal izango dira, eta behar dituzten datu guztiak emango zaizkie. Tolosaldeko Mankomunitateak, egindako ikuskapenaren arabera, agindu eta jarraibide jakin batzuk eman ahal izango ditu, eta esleipendunak nahitaez bete beharko ditu.

Tolosaldeko Mankomunitateak eskatzen dion dokumentu oro erakutsi beharko dio esleipendunak, eta, bereziki, gizarte-segurantzari, laneko arriskuen prebentzioari, lan-istripuei, aseguru-polizei, instalazioei eta materialari buruzkoak, eta oro har, Tolosaldeko Mankomunitatearen edozein erantzukizun subsidiario saihesteko jardunak ahalbidetzeari buruzkoak direnak.

Esleipendunak, halaber, Tolosaldeko Mankomunitateak agintzen dizkion zerbitzuaren inguruko txosten eta azterlan guztiak egin beharko ditu.

Tolosan, 2022ko ekainaren 10ean

TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA
Bazurka Industrigunea, 50 – 20260 Alegia - Tel. 943676216 – info@tolosaldekomankomunitatea.eus – www.tolosaldekomankomunitatea.eus

I. ERANSKINA. 2021ean udalerrika bildu ziren etxeko olio-kopuruak. Gutxieneko bilketa maiztasuna.

UDALERRIA	2021. URTEA	Gutxieneko bilketa maiztasuna
ABALTZISKETA	114	2 aldiz urtean
ADUNA	194	2 aldiz urtean
ALBIZTUR	184	2 aldiz urtean
ALEGIA	1270	2 hilabetez behin
ALKIZA	248	2 aldiz urtean
ALTZO	590	2 aldiz urtean
AMEZKETA	707	3 aldiz urtean
ANDOAIN	9778	Hilero
ANOETA	1966	2 hilabetez behin
ASTEASU	842	4 aldiz urtean
BALIARRAIN	97	2 aldiz urtean
BELAUNTZA	120	2 aldiz urtean
BERASTEGI	989	3 aldiz urtean
BERROBI	415	2 aldiz urtean
ELDUAIN	184	2 aldiz urtean
GAZTELU	91	2 aldiz urtean
HERNIALDE	124	2 aldiz urtean
IBARRA	2658	2 hilabetez behin
IKAZTEGIETA	296	2 aldiz urtean
IRURA	1245	3 aldiz urtean
LARRAUL	229	2 aldiz urtean
LEABURU	259	2 aldiz urtean
LIZARTZA	378	2 aldiz urtean
ORENDAIN	330	2 aldiz urtean
OREXA	653	2 aldiz urtean
TOLOSA	13233	Hilero
VILLABONA	4579	2 hilabetez behin
ZIZURKIL	1758	2 hilabetez behin
GUZTIRA (KG)	**43531**	

TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA
Bazurka Industrigunea, 50 – 20260 Alegia - Tel. 943676216 – info@tolosaldekomankomunitatea.eus – www.tolosaldekomankomunitatea.eus

II. ERANSKINA. Etxeko olioa biltzeko udalerri bakoitzean jarri diren edukiontzi-kopurua.

UDALERRIA	EDUKIONTZIAK
ABALTZISKETA	1
ADUNA	1
ALBIZTUR	1
ALEGIA	2
ALKIZA	1
ALTZO	1
AMEZKETA	2
ANDOAIN	10
ANOETA	4
ASTEASU	2
BALIARRAIN	1
BELAUNTZA	1
BERASTEGI	2
BERROBI	1
ELDUAIN	1
GAZTELU	1
HERNIALDE	1
IBARRA	4
IKAZTEGIETA	1
IRURA	2
LARRAUL	1
LEABURU	2
LIZARTZA	1
ORENDAIN	1
OREXA	1
TOLOSA	14
VILLABONA	6
ZIZURKIL	3
GARBIGUNEAK (Andoain eta Tolosa)	2
GUZTIRA	**71**

TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA
Bazurka Industrigunea, 50 – 20260 Alegia - Tel. 943676216 – info@tolosaldekomankomunitatea.eus – www.tolosaldekomankomunitatea.eus